

telebista ♦ irratia

Haurrentzako marrazki bizidunen proiektua du Irusoin ekoiztetxeak

Forum Cartoon 2000 jardunaldietan harrera ona izan du 'Gautxo' telesailak

Lore Agirrezabal / Donostia

Gautxo izeneko mutiko baten abenturak kontatuko dituen marrazki bizidunen saila osatu nahi du Irusoin ekoiztetxeak. Forum Cartoon 2000 jardunaldietan harrera ona izan du proiektuak eta, oraingoz, ETBren babesa jaso du.

HARRERA ona izan du Irusoin ekoiztetxearen *Gautxo* egitasmoak Suedian egin berri den Forum Cartoon jardunaldietan. Cartoon elkarteak Bruselatik urtero antolatzen dituen jardunaldiak dira horiek, bertan Europa guztiko telebista kateak, banatzaileak, ekoiztetxeak, finantza enpresak eta abar biltzen dira, proiektuak aurkeztu, salerosi edo negoziatzeko. Irusoin ekoiztetxeak aurtengo haurrentzako marrazki bizidunak aurkeztu ditu, eta dagoeneko ETBk finantzaketan eta koproduttore bezala parte hartzeko asmoa duela agertu du. TVERi ere interesatu zaio proiektua, baina negoziaketa horiek luze jo ohi dutela adierazi digu Iñaki Gomez Irusoin ekoiztetxeko zuzendariak. Europako zenbait telebista katek ere jarrera baikorra agertu dutela dio, baina, bere hitzetan, «diru kopuru handiak dira, eta



Gautxo, Irusoin ekoiztetxearen abenturazko marrazki bizidunetako protagonista.

normalean inguruko telebista kateen babesa behar izaten da kanpokoena jaso aurretik». Gauzak poliki joan ohi direla baina itxaropentsu daudela adierazi du Gomezek. TVERen onarpena jaso eta sei hilabeteren buruan proiektu osoa finantzatzeko modua ikusten du. Gainera, Bruselatik, Mediatik, proiektuaren garapenerako diru laguntza jaso dute.

Abentura eta kulturak

Cartoon Forum jardunaldietan Koldo Izagirrek idatzitako gidioa, 13 sinopsi eta minutu bateko proba bat aur-

keztu dituzte (oraindik ez dute zehaztu gidio osoa idatziko duen lan taldea).

Guztira 26 minutuko hamahiru atal izango ditu *Gautxo* serieak. Protagonista izen bereko 12 urteko mutiko bat da, zeina gurasoekin Hego Amerikara bizitzera joan eta umezurtz geratuko den. Umezurztegitik ihes egin eta laguntza bat —arratoi itxurako animalia bat, zeinak aitaren lekua beteko duen— topatzean hasiko dira bere abenturak. «Abenturazko istorio bat da, baina ikuspegi kulturalago bat eman nahi izan diogu», azaldu du Iñaki Gomezek. Gau-

txok garai bateko balioak, kultura eta ohiturak nolakoak diren erakutsiko die haurrei. Euskaldunek eta euskarak Ameriketara izan duten presentzia ere islatuko da marrazki bizidunotan.

Irusoin 1986an sortu zen, eta berak ekoitzi ditu *Fernando Amezketarra*, *Lazkao Txiki* eta *Txirrita* marrazki bizidunak, baita *Auñamendietan* dokumental saila ere. Orain film luze bat, *Karramarro Uharte*a, estreinatze-koak dira azaroan. Lehengo, azaroaren 4an, Kursaal-ean eskainiko dute Zinema Fantastikoaren Jaialdiaren amaiera ekitaldian.

Zorraz kitatzeko aukera ETB2ko lehiaketa berrian

■ 'Números rojos' lehiaketa hasiko da gaur, Patricia Gaztañagak aurkeztuta

Erredakzioa / Donostia

LEHIAKETA berrian parte hartzeko beharrezkoa da zorretan egotea eta irabazitako dirua zor ordaintzeko erabiltzea. Zorraz milioi bat eta hiru milioi pezeta artekoa izan behar du (40 mila libera eta 120 mila libera bitartekoa). Finalera heltzen den lehiakideak —guztira lau lehiakide dira— milioi

erdi gehiago lor dezake, edo besterik gabe bere zorra estali.

Publikoak lehiakide baten alde egingo du apustua, eta lehiakidea finalera heltzen bada harekin proba batean parte hartuko du. Publikoak ere sari handiak irabazteko aukera du, beraz. Patricia Gaztañagak aurkeztuta, ostiralero izango da *Números rojos*, 21:50ean.



Ostiralero izango da *Números rojos* saioa.

laburrean

RTVE SEPI elkartearen bidez kudeatzeko erabakia hartu du Espainiako Gobernuak

Industri Partaidetzarako Espainiako Sozietateak (SEPI) kudeatuko du Espainiako Irrati-Telebista Publikoa. Erabaki horren bidez Espainiako Gobernuak nahi du SEPIk dituen enpresa irizpideak RTVen gauzatzea. Plan estrategiko horrekin, zerbitzu publikoa eskaintzeaz gain, zorraz kitatu eta erakundeak duen defizita gaitu nahi du Espainiako Gobernuak. Gobernuak berak ezeztatu duen arren, CCOO eta UGT sindikatuek uste dute erabaki horrek irratia-telebista publikoaren pribatizazioa ekarriko duela, eta, horrenbestez, Ogasun Sailarekin biltzea eskatu dute. Mobilizaziorako deia egin dezaketela ere adierazi dute sindikatuek.

Drogaren inguruko azpilanak eta emakumezkoen tratutxarrak Antena3 katean

Espainiako hainbat aireportutan segurtasun indarrek droga trafikatzailerak harrapatzeke nola lan eginguten erakutsiko du *Alerta 112* saioak. Droga ezkutatzeko erabiltzen dituzten trikimailuak ikusiko dira, horien artean drogazko 80 bola irentsi eta ospitalera eraman behar izan zuten baten kasua. Bestalde, emakumeek jasaten dituzten tratutxarrei buruzko erreportaia bat ere emango dute. Saioa 00:30ean hasiko da.

Pablo Mandazen biologoa ETB2ko 'El punto...' saioan

Gines Anaia izenarekin ezagunagoa den Pablo Mandazen elkarrizketatuko du gaur Juan Luis Bikuñak *El punto...* saioan. 88 urteko biologoa eta eskola kristautetako kidea da Mandazen. Jaiotzez Garrañakoa da (Nafarroa), eta Venezuelan jardun du kristaubideari lotutako zereginetan eta ikerketa zientifikoen garapena bultzatzen.